


"Euskara, ez da hain txikia; inguratzen gaituena da oso handia"

Horrelako esaldiak dira euskaldunek entzuten dituztenak. Erreportaje honetan adierazi nahi da, datuekin, estatistikekin, argazkiekin... zein handia den euskara, eta haien jabeek nola bideratzen duten. Puntu desberdinak ikusiko dira erreportaje honetan.

Euskararen ofizialtasuna:



Wikipedian ikusi daitekenez, euskara herri hizkuntza izan da beti eta ez du ia inoiz onarpen

ofizialik eduki. Ez da inoiz erabili administrazioan, baina gaur egun, EH-ko toki batzuetan, hizkuntza koofiziala da. EAE-n euskara ofiziala da, gaztelaniarekin batera. Ipar EH-n euskara ez da ofiziala. Honek pista txikiak ematen ditu euskara zergatik ari den galtzen galderari erantzuteko.

Hizkuntza gaitasuna:

<http://www.soziolinguistika.eus/edb/>

Web orri hau Euskararen Datu Basea da, eta euskarari buruzko datuak jasotzen ditu. Web orri honetako datuen arabera, Euskal Herriko %43,72k euskara hitz egiteko gaitasuna du. Horrek ez du esan nahi EH-ko %43,72k

euskaraz hitz egiten duenik, baizik eta egin dezakeela. %8,9-k bakarrik ematen dio kale-erabilera eta horrela dago antolatua:


Euskal Autonomia Erkidegoan, %14,8k ematen dio kale-erabilera; Nafarroan, %6,7k eta Ipar EH-n, %5,3k. Hiru hauek kontuan hartuta %8,9 da kale-erabilera ematen diona. Beste datu hauek ere atera genituen:

EAEko %61,43k du euskaraz hitz egiteko gaitasuna, Nafarroako %24,2k eta Ipar EH-ko %44,55k. Datu horiekin guztiekin konturatu gaitetzke, ez dela nahikoa erabiltzea euskara, dakien jende kopurua ikusita.

Honako hau EH-n, hizkuntza bakoitza, zer ehunekok hitz egiten duen adierazten duen taula da.



Zenbat hizkuntza dago munduan?



Munduko mapa honetan, munduan hitzun gehien dituzten hizkuntzak agertzen dira adieraziak, koloretan. Hizkuntzak hauek dira: ingelesa, frantsesa, gaztelera, alemaniera, portugesa, txinera, errusiera, hinduera, italiara, arabiera, pertsiera eta swahilia. 7.000 hizkuntza daude guztira munduan, eta hauek dira hitzun gehienak dituztenak: 1. Txinera, 2. Hinduera, 3. Gaztelera, 4. Ingelera, 5. Arabiera. Mapa politikoa eta existitzen diren hizkuntzak ez datoz bat eta hori jakin dezakegu munduan dauden hizkuntza ez-ofizial kopurua begiratzen badugu.

Eskalaren jokoa:

Kike Amonarriz euskal soziolinguista eta ikerlari ezagunak, inkesta bat egin zuen kalean, eta galdera hau aireratzeko zuen: "Hiztun kopurua kontuan hartuz, euskara zein zenbakitan kokatuko zenuke 0tik 10erako eskalan?" Jende gehienak 1 eta 4 artean kokatzen zuen, baina ez, 9. puntu dago.

Munduan 400 hizkuntza dira 1.000.000 hitzun baina gehiago dituztenak Ethnologue-en arabera eta euskara horien artean dago:

EAE-n=790.000

Nafarroan=75.000

Ipar EH-n=57.000

Guztira=922.000

Datu horiek kontuan hartuta jakin daiteke euskara hitzun gehien dituzten %10ean dagoela.

Zergatik ikusten dugu gure burua hain txiki?

Kikek beste galdera bat proposatu zuen gero: "Zergatik ikusten dugu geure burua horren txiki?". Erantzun ugari zeuden, baina batzuk errepikatu egiten ziren. Dakien jendeak ez duela erabiltzen erantzuten zuten batzuek, eta beste batzuek, hainbeste hizkuntza egonda, euskara oso txikia ikusten zutela. Hala ere gehien errepikatu zen erantzuna hau izan zen: inguruan ditugun hizkuntzak hain dira handiak, gure hizkuntza oso txikia iruditzen zaigula.

Euskara	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
---------	---	---	---	---	---	---	---	---	---	----

Calvet barometroa:

Calvet soziolinguista frantses bat da eta bere izen berdina duen barometro bat sortu zuen. Barometro horrek hizkuntzen bizi indarra neurtzen du. Munduko 563 hizkuntza jasotzen digu, eta euskara 51. postuan dago, argazki honetan ikusten den bezala.


46	occitan ▶	3.829
47	lithuanien ▶	3.817
48	ukrainien ▶	3.793
49	galicien ▶	3.77
50	macédonien ▶	3.763
51	basque ▶	3.747
52	leton ▶	3.743
53	télougou ▶	3.736
54	gallois ▶	3.721
55	suisse allemand ▶	3.714

11 aldagairen arabera baloratzen ditu hizkuntzak, eta horietako aldagai bat hizkuntzek sare sozialetan duten presentzia da.

Euskararen egoera Unescoren arabera:

UNESCOk, mapa batean, desagertzeko arriskuan dauden hizkuntzen mapa bat egin du. Koloreen arabera sailkatu ditu:

- Txuria: zaugarria.
- Horia: arriskua.
- Laranja: arrisku nabarmena.
- Gorria: arrisku larria.
- Beltza: desagertua.



EH horian dago, Arriskuan. Aldagai eta faktore hauek hartzen dira aintzat mapa egiteko:

1. Belaunaldiz belaunaldi zenbat pasatzen den hizkuntza. Hego EH-n nahiko ondo bultzatzen da belaunaldiz belaunaldiko hizkuntza helarazia, baina Ipar EH-n oso gutxi helarazten diete gurasoek seme-alabei.
2. Hitzun kopurua.
3. Zer gauzetarako erabiltzen den hizkuntza.
4. Estatu edo erakunde ofizialak zer babes ematen dion.
5. Zein den hitzunen jarrera hizkuntzarekiko; hau da, zenbat erabiltzen duten, leku guztietan erabiltzen duten...

Nola atera armairutik 500.000 euskaldun?

Galdera honetan esan nahi dena da 500.000 euskaldun daudela euskal kultura kontsumitzen ez dutenak: aldizkariak, telebista, irratia... Horiek bultzatzea da helburua. 200.000 euskaldun dira euskal kultura kontsumitzen dutenak; 1/4. Imanol Epelde euskara irakasle eta youtuberrak aholku hauek ematen ditu euskal kultura bultzatzeko:

1. Libururen bat irakurri.
2. “Berria edo Gara aldizkariak erosi eta irakurri.”
3. Euskarazko antzerkiak ikustera joan.
4. Eitb kanalak ikusi.
5. Badok app-a deskargatu. Euskal musika dagoen aplikazio bat da.

Horrekin guztiarekin euskara bultzatzea lortu nahi da.

Ondorioak:

Guzti honetatik ondorioak atera daitezke. Guztiok pentsatzen genuena baina handiagoa da euskara. Hala ere kontuz ibili behar gara, eta euskara kontsumitzen eta hitz egiten jarraitu behar dugu, ez dadin desagertu. Datuekin konturatu gara, Ipar EH-n geroz eta euskera gutxiago helarazten dela belaunaldiz belaunaldi eta bertan ere bultzatu egin behar dela hizkuntza. Hego EH-n datuak hobeak dira, baina okerrera doazela ere nabarmena da. Euskara bultzatzeko gauzak egitea komeni da (Euskaraldia, korrika...), eta horrela gure hizkuntza indartzen jarraituko dugu. Lortu beharrekoa da azken finean, hizkuntza ez izatea hainbeste etxekoa, eta gehiago, egunerokoa. Interneten, hezkuntzan, dendetan... Alderdi guztietan.